

#10

VICENT ANDRES ESTELLESEN *HORACIANES* OBRAREN BERRIDAZKETA ETA ALDARRIKAPENA

Amanda Ruiz Navarro

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa

amandaruzna@gmail.com

Aipatzeko gomendioa || RUIZ NAVARRO, Amanda(2014): "Vicent Andres Estellesen *Horacianes* obraren berridazketa eta aldarrikapena" [artikulua linean], *452°F. Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 10, 166-182, [Konsulta data: dd/mm/aa], <http://www.452f.com/pdf/numero10/10_452f-mis-amanda-ruiz-navarro-eu.pdf>

Ilustrazioa || Mireia Martín

Itzulpena || Nora Garmendia

Artikulua || Jasota: 12/02/2013 | Komite zientifikoak onartuta: 30/10/2013 | Argitaratuta: 01/2014

Lizentzia || 3.0 Creative Commons lizentzia Aitortu - ez merkataritzarako - lan eratorririk gabe

0. Sarrera: «Aut insanit homo aut versus facit»

Més discordances liburuan, Joan Fusterrek aitortzen du bere «dòcil costum és un trosset de Mediterrani, suau, horacià, amistós...»¹ dela. Aforismo hori Estellesena izan daiteke, bere ohitura ez baita beti otzana edo suabea, Horaziorena bezalaxe. Denborarekin kritikoa eta bizia bihurtutako zerbait bizi izan zuten biek, eta batez ere darabilten hizkeran nabaritzen da. Eta, beraz, biek komunean duten mediterraneoko izaera, bizizaletasuna edota laguntasuna al dira Estellesi Horazio gisa jokatzera bultzatzen dioten arrazoietakoz batzuk? Bere tokiak, denborak, lagunak, etsaiak aldatzera? Azken finean, Horazio berridaztera?

Izan ere, berridazketa batean, ez dugu pentsatu behar idazle batek beste idazle bat inongo arrazoi jakinik gabe berridazten duela. Parodiako intentzioa, aldarrikapena, identifikazioa? Zergatik Horazio? Aukeratutako corpusa ere aintzat hartu behar da. Zergatik *Sàtires* edo *Odes i Epodes*? Hala ere, egia da askotan estilolariketa eta imitazio formalak izaten direla. Kataluniako literatura garaikidean, bereziki ipuinen generoan, hainbat idazlek teknika narratibo desberdinak probatzen dituzte, eta hori hainbat adibidetan ikus daiteke. Adibide bat Mercè Rodoredaren *Vint-i-dos contes*-en ikus dezakegu, edo Francesc Serések *Contes russos*-eko ipuin batzutan. Baina berridazketa puruki formalak errazen ikus daitekeen generoa, begi bistako arrazoiengatik, poesia da. Miquel Costa i Llobera poeta mallorcarra, hain zuzen, horrela gerturatzen da Horaziorengana. Jaume Medinak dioten moduan (1977: 106), «si l'imitador és conseqüent fins a l'últim extrem, la seva obra corre el perill de respirar el mateix alè que l'obra inspiradora», eta Costa i Lloberak ez zuen nahi bera ere Horazioren bizitza ikusteko modu pagano eta epikurear berarekin identifikatzea.

Baina gu Vicent Andres Estelles idazleari buruz arituko gara (Burjassot, 1924- Valentzia 1993), bere garaiko errealitatearekin konprometitua zena. Fusterrek (1972: 31) honela definitzen duen errealitatea: «la sinistra etapa dels grans pànics, quan no hi havia espai ni temps per al respir, i la gent respirava com podia». Estellesek hamabi urte zituenean Gerra Zibila hasi zen, eta ikasteari utzi behar izan zion. Nahiz eta jatorri apaleko bere familiak liburu batzuk erretzeko premia izan zuen, Estellesek bere eskuetara iristen zen oro irakurtzen zuen; batez ere, Garcilaso de la Vega eta antzeko idazleen gaztelerazko poesia. Baina «"llegir", en aquella època, era un drama. I clandestí». (Fuster, 1972: 24); 1942. urtean Estelles Madrilgo bekadun gisa aritu zen Kazetaritza Eskola Ofizialean, eta bertan Vicente Aleixandre, Neruda, Lorca eta Albertiren poesia deskubritu zuen. Poesia katalanari dagokionez, lehenago irakurri zuen Teodor Llorente, Foix edo Riba baino Fusterrek bezalaxe. Hain

OHARRAK

1 | 1981 eta 1984 urteen artean Joan Fusterrek *Janon, Medicina y humanidades* azpiztitulua zuen astekarian, argitaratutako artikulua biltzen dituen liburukia da. Bromerak argitaratutako lehen liburukiak, *Discordances*, aldizkari berak 1974 eta 1980 bitartean argitaratutako artikulua biltzen ditu. Berez, artikulua horiek gazteleraz idatzi eta argitaratu ziren, baina Enric Sòria poetak katalanera itzuli zituen.

zuzen, Estellesen arazoetako bat bertako hizkuntza jasoa tradizioz gabekoa izatea zen, «prima i vacil·lant, i no sòlida i cerimonial com la dels mallorquins [...] Calia establir la provatura enmig d'un buit desanimat» (Fuster, 1972: 26). Hori guztia valentziar sinple eta herrikoiei batean itzuli zen. Estellesengan, «les paraules del carrer, grolleres tal volta, o sovint, o de somrient gentilesa menestral, els sobreentesos sardònics, els clixés i les interjeccions del diàleg de veïnat, es convertien així en materials "lírics" d'una potència inesperada» (Fuster, 1972: 26).

Izan ere, nahiz eta Estelles kazetaria izan, poesia gerturatu da, eta barruraino murgiltzen da. Poesia-amorruz murgiltzen da, Horazioren moduan. Baina kasu honetan, ezin dugu Estellesen erbestearen baldintza ahaztu. Barne erbestearatze bat da, izan ere, ezin du bere iritzia jendaurrean adierazi, erregimen frankistak eta errepresalia posibleek eragindako askatasun ezagatik. Horregatik, askotan, bere lanen argitalpen datak ez datoz bat idatziak izan ziren dataekin. Izan ere, Estellesek kolpez argitaratu du. Ordura arte, asko idatzi eta gutxi publikatu izan zuen, baina 1971 eta 1972 artean lau poema-bilduma desberdin eta lan osoen lehenengo bolumena atera ziren argitara.

Horacianes poema-bilduma erabiliko dugu Horaziok Estellesen poesian duen eragina eta bertan jokatu duen papera ulertzeko. Lan hau hirurogeiko hamarkadan idatzi zen, baina 1974. urtera arte ez zen argitaratu. *Llibre de Meravelles* gerraosteko kronika moduko bat da, eta *Horacianes* obran topatu ditugun poemetak askok garai hartako errealitatea irudikatzen dute, hirurogeiko hamarkadako Valentzia grisa. Eta nola gertatu da hori Romara eramaten gaituztenean, Virgilitarekin hitz egiten dutenean edo Safo aldarrikatzen dutenean? Agian galdetu beharko genuke ea ez den latino eta greko klasikoekin eta bereziki, Horaziorekin duen joko hau, frankismoak inposatutako sufrimenduei zuzeneko edo zeharkako aipamen konstanteak egiten uzten diona. Esateko modu bat da, ezer esan gabe. Izan ere, Estellesek berak bere lerroetako batean aitortzen duen moduan, «l'ofici de poeta em determina a no dir-ho tot.»

Horazioren ibilbideaz askoz ere gauza gutxiago dakizkigu. Edo ez dakizkigu halako segurtasunez. *Vida d'Horaci* daukagu –Estellesek hainbeste kritikatu duena *Horacianes* poema-bilduman– Suetoni idatziak k.a. 75 eta 160 urteen artean, gutxi gora-behera. Baina, batez ere, *Sàtires* daukagu, eta askotan kontakizunei eta pertsonaia arruntei buruz nola hitz egiten duten kontuan hartuta, bere bizitzaren inguruan jakiteko iturri onenak dira. Badakigu, hori bai, Estelles berak azpimarratzen duen moduan, Horazioren kalitate literarioa halabeharrez dagoela lotua Erroman ikasi ahal izanarekin, irakasle onak eduki izanarekin eta, batez ere, k.a. 45 eta 42. urteen artean,

bere formazioa Atenasen osatu ahal izanarekin. Gero Erromara itzuli zen Filipos guda garaian; guda horretan, Marc Antoni eta Octavi (Bigarren Triunbiratuko kideak) Bruten eta Casioren aurka borrokatu ziren, Julio Zesar erahil zuten errepublikaren aldekoen aurka. Gerra Zibileko giro horren ondorioz, gizartearen oraina eta geroagatik larritu zen, Estellesen moduan. Hala ere, Horaziok irabazleen babesla lortu zuen (Octaviàren alderdiarena); Virgilierekin zuen harreman onari esker, Mecenes aurkeztu zioten, eta horrela jende garrantzitsuen artera sartzea lortu zuen. Momentu hartatik aurrera bere jardura literarioa hasi zen, eta azkenean, hainbeste desio zituen bakea eta lasaitasuna topatu zituen Mecenesek oparitutako Sabina etxean.

Bere ibilbide poetikotik *Sàtires*, *Odes* eta *Epodes* aztertuko ditugu, Estellesen berridazketa biltzen duten obrak direlako. *Epodes* hamazazpi idazlanek osatzen dute, metro janbikoetan idatziak, Arkiloko poeta grekoaren eredu jarraituz. Erromako historiaren eta, era berean, poetaren bizitzaren garai ekaiztsu batean izan ziren idatziak (k.a. 43 eta 30 urteen artean). Erromatik alde egiten duten herritarrei proposamen bat egiten die poetak, gatazka zibilaren giroak eragindako desengainuaren ondorio dena. Josep Vergèsek (1981: 110) dioten moduan, *Epodes* poemek «reflecteixen tot això quan expressen la repugnància del poeta pels vicis que enllordaven la societat romana, l'angoixa que li causaven les lluites fraticides dels ciutadans romans i el sincer agraïment i franc companyonatge que l'unia al seu protector.»

Bestalde, *Odes* poemek, Alceu eta Saforen eredu jarraitzen dute, eta heldutasuna agertzen duten lanak dira. Horaziok poesiaren bidez hilezkortasuna lortu nahi zuen, erromatarrek *secunda mors* esaten zuten hori saihestu, ahanztura saihestu. Horrela, teknika garbi batez, errealitate gertuena mosaiko poetiko perfektu batean bilakatzen du, lan artistiko borobil batean; distantzia jakin batetik eraikitzen du, hau da, objektiboa izateko joera duen perspektiba batetik. Lanak, gainera, arte klasikoaren lasaitasuna berreskuratu nahi du, eta bizitzaren eta denboraren *igarotzearen* (*carpe diem*) inguruko hausnarketa sakona egiten du. Asmoa ez da zentzumenen eta bizitzaren gozamenara askatzea; barne babesleku bat sortzea eta bertatik denbora tentuz administratu ahal izatea baizik.

Sàtires poema-bildumak, nahiz eta antzekotasun batzuk eduki *Epodes* poema-bildumarekin, ez du hain tonu ironiko eta sarkastikoa. Luciliren ereduari jarraitzen dion hexometro daktilikoan dago idatzita, eta azpimarratu beharra dago Erromako literaturan genero berria dela. Jaume Joan Castellók (2008:16) bere hitzaurrean aipatzen duen moduan, ez dago jatorri greziarrik: «*Satura tota nostra est* — esan zuen Quiniliàk—. Izan dadila, Erromatarrentzat, beraz, Satiraren meritua; baina baita, ordainetan, berarekin dakarren arazoa ere»². Bestalde, gai aldaketa asko edukitzeagatik dira ezagunak, nahiz

OHARRAK

2 | Quintiliàri buruz egiten den aipamena ez da literalki ulertu behar. Begibistakoa da poeta latinoengandik haratago generoaren dimentsio diakroniko bat dagoela, baina Quintilià lehenengoa izan zen sàtira modu literarioan ulertzen eta Luciliren lanari buruz hitz egiteko generoaren modu kritikoa erabiltzen.

eta kritika pertsonalen eraginez gizartearen behaketa eta ohituren inguruko hausnarketa bat egiten den. Bere bizitzako momentuak, eztabaida filosofikoak, bidaien deskribapenak eta, batez ere, aholku gastronomikoak biltzen dira bertan. Baina Horaziok gizarteko bizio eta zuhurkeriak lezio moral bat lortzeko intentzioarekin lotzen ditu, bizi-arau moduko batekin, eta ez gizartea aldatzea lortzeko helburuarekin. Epikureismotik gertu dagoen bizitza idealari jarraitzen dion oreka pertsonal baten ikerketa mota batekin. Eta, halaber, Jaume Joan Castellók (2008: 18) dioten moduan, «Horaci actua no com un filòsof assenyat i censor, sinó com un artista urbà i juganer. [...] Horaci no és un moralista, Horaci, ja en aquest fruit primerenc del seu enginy que són les *Sàtires*, se sent i se sap poeta, només poeta.»

1. Estelles-Horazio edo Horazio-Estelles?

Hasieratik esan dugu Estellesek Horazioren poetikari egiten dion ekarpena, Cosa i Lloberarena ez bezala, ezaugarri formaletatik eta hizkera poetikoaren imitaziotik harago doala. Hala ere, garrantzitsua da lehenago biek partekatzen dituzten bi hautuak azpimarratzea: haien poemen izaera narratiboa, eta interlokutoreen jokotik datorren elkarrizketa-estiloa. Hori dela eta, Estellesek askotan poema-elkarrizketa mota bat aurkezten du, eta bertan ni poetikoa *zu* batean bilakatzen da; batzuetan poeta bera izaten da *zu* hori, eta besteetan lagun bat (Virgilio, Mezenas...), etsai bat (Suetoni), beste poeta bat (Safo), maitalea, edo hildakoa bera. Horrek guztiak izaera konfesionala ematen dio testuari, eta esanahiak zabaltzen eta anbiguotasunaren jokoa saihesten du. Aurrerago ikusiko dugun moduan, konpromiso soziala eta ideologia-konnotazioak ezkutatu egiten dira.

1.1 Bizitzaren ikuspegi herrikoia, paganoa, umila

Gaiaren ikuspuntutik, bizitasun hori, bizitza eta, ondorioz, poesia ulertzeko modua bai Estellesen bai eta Horazioren lanetan ere aurki daiteke. Hori dela eta, haien poemak irakurtzean, guztiaren gaineratik egunerokotasuna inposatzen dela dirudi. Janaria, edaria, edo ezaugarri eskatologikoenak, materia poetiko bihurtzen dira Estellesen unibertsoan. XVI poeman, adibidez, ni poetikoak aitortzen du nahiago dituela barraskilo batzuk eta Turís ardo bat, Perellóngo³ ilunabar baten edertasuna baino. XXXII poeman etxe batean prestatzen ari diren *Suquetaren* erramuaren usainak limurtu egiten duela azaltzen du. Beste poema batean, Saguntoko ardoa eta oliba ireki batzuen plazerra goraiatzeko du. Mozkorraldi gau bateko ondorio eskatologikoak ere aitortzen ditu (XLIV), edo goratzen ditu (L). LVI poeman, adibide bat aipatzeagatik, aliolia maionesaren

OHARRAK

3 | Estellesen poemetan leku-izen eta izen berezi guztiak letra txikiz agertzen dira. Letra larrik ez erabiltzea, bere idazkeraren ezaugarrietako bat, ez da ohitura latindar gisa ulertu behar; gauza txikiz, arruntez eta anonimoez osatutako bizitza ikusteko modu gisa baizik. Ikuspuntu horrek abangoardien nolabaiteko karga iraultzaile bat dakar eta bizitzako beste ikuspuntu batzuekin alderatzen da, oinarri erromantikoa duen bizitasun batetik gertuago dauden ikuspuntuekin.

gaintik jartzen du, eta Jaume Medinak Horazioen munduaren (aliolia) aldarrikapen gisa interpretatzen du, Costa i Lloberak egiten duen bigarren interpretazio formalaren alboan (maionesaren defendatzailea «adduint testimonis cultíssims de gourmets»). Izan ere, momentu jakin batean ni poetikoak Virgiliri hitz egiten dio eta honako hau aitortzen du: «nosaltres, que passem com a poetes,/ cantem o bé enaltim, t'ho concedesc, certes banalitats.». LII poeman, poetak gauza arruntei buruz hitz egiteko hizkera poetikoa erabiltzea zilegi dela defendatzen du, ezkerreko oineko behatz lodia goraiatuz. Nabaria da ezaugarri ironiko eta kritikoa, izan ere, berak ere aitortzen du kritiko askok bere poesia zentsuratuko luketela hutsala izateagatik. Baina

i què hem de fer-hi.
¿tot ha de ser
trascendental?
mira, diria,
ets un imbècil
hermafrodita.
faig el que vull,
i l'idioma
se'm fa flexible
i apte per tot.
cante diana
o invoque zeus
o evoque grècia,
en faig l'elogi
de la política,
cante els benignes
fruits de la terra,
i ara mateix
cante el dit gros.
¿i qui s'oposa?

Baina ez gaitzala engainatu. Estellesek oinarrizko gauzak abesten baditu eta poesia bakun bat aldarrikatzen badu, «aquesta senzillesa no deixa de ser aparent ja que la construcció poètica presenta un elevat grau d'elaboració que no escapa al lector atent» (Aparicio 2004:153).

Horaziorengan eguneroko anekdotaketa erreferentziagastronomikoak ere materia poetiko bihurtzen dira. Adibidez, III. epodean Mezenasi tonu lasai eta lagunkoian aurpegiatzen dio txantxa egin izana baratxuriz betetako jaki bat jatera behartzerakoan, bere gorputzak ez baitu ondo onartzen baratxuria⁴. III. liburuko XXI odak himno erlijiosoen egitura eta lexikoa izateagatik tonu delikatu eta serioagoa duen arren, ardo gerra bati eskainia dago, anfora bati, eta umore ona eta optimismoa nabari da. Baina egunerokotasunaren gorespen hori gehienbat *Sàtires* poema-bilduman ikus daiteke. Hain zuzen, I liburuko V. satiran, Erromatik Brindisirainoko bidaia kontatzen du, eta ez du xehetasunik galtzen, hala nola, ura nazkagarria zela edo

OHARRAK

4 | Agerian geratzen da Horaziok *Epodes* idatzi zuenean oraindik oso poeta ezaguna izan ez arren, Mezenasekin oso harreman estua zuela.

dena eltxoz betea zegoela. II. liburuko II. satiran, elikadura urriaren abantailak azaltzen dizkigu, eta elikagaien jatorriaren hausnarketak aurki ditzakegu: «¿Per quin senyal creus que es pot saber si aquest llobarro bocaample ha estat pescat al Tíber o a mar obert, si el van treure a l'altura dels ponts o a l'embocadura del riu etrusc?» Kezka horiek, bizi garen mundu globalizatuan, guztiz garaikideak dirudite. Halaber, IV. satirak benetako errezeta bat dauka. «En aquest cas Caci, un admirador d'una mena de nouvelle cuisine, no té altre maldecap que procurar recordar els preceptes culinaris acabats de descobrir.» (Joan Castelló, 2008: 191). Are gehiago, idorreriaren aurkako edo gehiegi edan duen norbait berpizteko gomendioak ere aurki ditzakegu. Bestalde, umore punturik gabe ezinezkoa da ulertzea Horaziok epodo bat (X) idaztea Mevi delako bat kritikatzu kiratsa dariolako (nahiz eta hori Horaziok dion gorrotoa justifikatzeko arrazoi bat besterik ez dela uste den) edo Priap jainko falikoaren egurrezko irudi batek puzkar bat botatzearekin sorginen sorginkeria boikotatzen duela kontatzea (VIII. satira, I. liburua).

Bizitasun sinple hori, bizitzaren ikuspegi umil hori, ezin dugu Horaziok hainbeste defendatzen zuen epikureismotik banandu; bere poesian behin eta berriz errepikatzen du gizon jakintsuak zorientsu egiten duen hori erein behar duela. Hain zuzen, gauza sinpleetan plazerra eta zorientasuna bilatzen bihur daiteke pertsona bat burujabe (autarkia), eta horrela aurkituko du arimaren lasaitasuna (ataraxia). Beraz, ez gara harritu behar I. liburuko satiran pertsonak, orokorrean, daukagun hori baloratzen eta horrekin ondo sentitzen ez dakigula esaten duenean. Konkretuki zekentasuna aipatzen du, eta pragmatismo sumindu batez aurpegiratzen dio dirua pilatzen ibiltzea, inongo erabilerarik eman gabe: «¿És que no saps de què serveixen els diners, quina és la seva utilitat? Serveixen per a comprar pa, verdures, una ampolla de vi i tot allò que la natura de l'home troba a faltar quan n'és privada.» Satira honen amaieran, nahiz eta Horaziok Krispirekin (filosofo estoikoa) distantzia bat mantendu nahi duen, antzekotasunak onartzen ditu. Epikureismo hori *mediocritas aurea* topikoarekin ere lotzen da, bizitza gozatzea gomendatzen baitu, egunerokotasunak ematen dituen gauzak zuhurki onartzea, momentuko gauzen plazerrari eta gozamenari uko egin gabe, hala nola, lagunaren konpainiari edo mahaiko dibertsioari. Adibidez, XLVII. poeman, Estelles-Horazio pozik dago «simplement/ en una amable i ponderada mitjania» bizi izanagatik, Zesarren mesedeak betetzen dituztenak edo Enperadoreari men egiten diotenak kritikatu. Halaber, Horazio, liburuko IV. satiran harro sentitzen da ohoreei uko egin eta bizitza umil bat bizi izanaz. Senatari bati bera baino askoz hobeto bizi dela esaten dio, eta bere errutina atsegina deskribatzen dio: merkatura joan eta prezioen inguruan galdetzen du, zirkoaren inguruan paseatzen du, porru eta garbantzu plater bat bazkaltzen du, lagunak bisitatzen ditu «I en haver acabat de dinar, sense haver-me atipat, però prou ple per a no sentir l'estómac buit la resta del dia,

m'estic per casa sense fer res. En això consisteix la vida de la gent sense ambició, ambició que inquieta i aclapara. I em consola la idea que així viuré més feliç».

Estellesen *Horacianes* poema-bildumeko XLII poemak ere printzipioen deklarazio bat egiten du, honako sarrera honekin: «M'he estimat molt la vida». Hemen argi eta garbi ikusten da eguneroko gauza txikiez gozatzeko ideia, eta, are gehiago, hedonismo puntu bat azaltzen da. Bizitza ikuspuntu intelektual batetik bizitzetik urrun, poetak mahai geldi batekin alderatzen du. Minimalismo ultra bat dago, eta argi ikusten da dekasilaboen zatiketan, beti letra txikiz idatzi nahiaren adierazpenean eta baita hainbat metonimiatan ere. «aquest got d'aigua», beharrezkoa; «una jove que passa pel carrer», maitasun desira; «aquell melic», erotismoa, edo «la primera dent d'un infant», samurtasuna eta xalotasuna. Zentzu honetan, Estellesen *Horacianes* lanaren hasierako poeman, hedonismoari egindako kantu moduko bat irakur daiteke, izan ere,

parla de les coses elementals i de l'existència diària, que queden dignificades gràcies al caire classicista que, de nou, traspuen els versos. Hi és present, a més a més, el gust per la selecció acurada dels mots, per la seua sonoritat, i una actitud vitalista amarada, com és freqüent en Estellés, d'ironia. (Aparicio 2004: 154)

Hori dela eta, poetak aitortzen du beste edozer baino gehiago gustatzen zaiola «enramar-me d'oli cru/ el pimentó torrat, tallat en tires» eta analogia moduko bat ezartzen du jaunartzearen erritu eukaristikoaren eta piperrautsa jatearen artean. Ezereza ere sakralizatzen du. Piperrautsa jateak ematen dion plazera orgasmo moduko bat bihurtzen da (beraz, konparazio nahiko esplizitua egiten du sexuak ematen dion plazerarekin) jaunartzea egiteko duen gogoia bezala interpretatu dezakegu, hau da, bizimodu sinple eta hedonista bat izatearekin.

Epikureismo honi lotzen zaion beste topiko bat Horazioren bertso ezagunetako bat da: *beatus ille* hitzekin hasten den konposizioa. Bertan poetak landa eremuko bizitzaren deliziak goraiatzen ditu, kaleko bizitzak eta negozioren munduak sortzen duen urduritasuna ikusirik. Azken lau bertsoek erakusten dute, hain zuzen, kritika bat, ironia krudel bat edo satira samur bat dela: poema lukurari baten azaletik idazten du; bere bihotza uzkuritu egiten da jendearekin zorrak kitatzen dituenean, eta dirua jasotzen duenean, berriro nola produzitu soilik pentsatzen du. Beste batean, II. liburuko VI. satiran, hain zuzen, Horaziok eskerrak ematen dizkio Mezenasi landa eremuan etxe bat oparitu izanagatik. «Era això el que jo desitjava: un tros de terreny no gaire gran, amb un hortet, una font d'aigua brollant prop de la casa i, a més, una mica de bosc.» esaten hasten da. Estellesek ere *beatus ille* hori aipatzen du, XXXIII poeman adibidez, izan ere, arrantzaleen bizimodu sinplea goraiatzen du eta nolabaiteko inbidia

die: «aquestes pobres gents que mengen les anguiles/amb aquella elegància ancestral. me n'aniria amb elles.» XXXV poema ere horrela interpreta daiteke, baina oraingo honetan nekazaria goraiatzeko du; izan ere, nekazariak gizakia ilargira heldu dela irakurtzen duenean, ilargira begiratu eta ezer ikusten ez duenez, lurra lantzen jarraitzen du. Lur hori Estellesen jaiotako baratzarekin identifikatzen dugu.

Hala ere, bizitasun honekin batera, garai bateko pasaiekin eta momentuekin lotutako oroimenaren eta saminaren pisua agertzen da, seguruenik poetak buruan idealizatuak izango dituenak⁵. Idealizatuak izango dituela diogu, izan ere, gogora dezagun Gerra Zibila Estellesek hamabi urte zituenean hasi zela. Poeta bera ere apur bat errudun sentitzen da errealitatek ihes egiteagatik, eta lotsa pixka batekin esaten du «si m'és permés,/ evocaré dies de la infantesa» (XV). Baina landetxea, baratzea, mitreak, «una agua de guitarres» (XX) gogoratzen dizkion sentimendu horrek min ematen diola dirudi. Nostalgia hitzaren etimologiak ere, argi uzten du saminak sufrimendua dakarrela. Batzuetan, agian urruntzeko eta horrela mina arintzeko saiakera batean, haurtzaroa gogoratzen du Horazioren bidez, Grezian bizi zen garaiari «aquell molt dolç enyor» esanez (XLVI):

secretament enyore grècia,
pecaminosament enyore grècia.
enyore l'aspra terra,
aquell ramat de cabres, unes vinyes, unes oli-
[veres, aquells núvols de pols,
enllà un plint, l'abatiment d'una columna,
llunyanament la mar.
des de grècia,
alguna horabaixa d'aquelles,
enyorava profundament roma,
la mea roma,
aquesta.

(vv. 5-16)

Halaber, ez da kasualitatea Horacianes bildumako azken poema Erromako ilunabarren ingurukoa izatea («ah roma, rica en capaltards,/ en savieses molt recòndites!»); eta momentu hori ni poetikoak edertasun handiz alderatzen du maitaleak alde egin baino lehen begiratzen diren uneari «i lentament, després, se'n va, entre la murta i els/ xiprers».

1.2. «En la intimitat nocturna del lliit»: maitasuna, erotismoa, sexua

Dagoeneko ez gaitu harritu behar maitasunaz taburik gabe hitz egiteko Estellesen eta Horazioren moduak; izan ere, Estellesen poesia-lanean maitasunak garrantzi handia du. Hala ere, harrigarria da garai historiko horretan gauza esplizituenak tratatzeko duen

OHARRAK

5 | Ezin gara toponimoen auzian luzatu, baina aipatzekoa da, behin bada ere, *Horacianes* lanean agertzen diren paisaia guztiek, Horazioren espazio eta denborarekin lotuta daudela (Erroma, Grezia, Venusa...), edo Valentziako tokiak dira (el Perelló, el Saler, Sagunt, Turís, Burjassot, Sueca...). Toki horiek askotan garai bateko orotzapen batekin lotuak daude, idealizazio moduan, eta *locus amenus* bihurtzen dira.

modua. Orokorrean, kritikan bi alderdi bereizi dira:

d'una banda, l'amor presentat des d'una òptica essencialment lírica, tendra i amorosida, referida especialment a la muller i companya del poeta al llarg de tota la seua trajectòria vital i poètica, Isabel; de l'altra, situaríem l'amor en la seua vessant més eròtica i sexual, sovint lligada a la mort, on es reivindiquen amb força els plaers de la carn acompanyats, o no, d'una vinculació sentimental o emotiva. (Aparicio 2004: 151)

Horrela, samurtasunez gain, maitasuna eta sexua zorrotzago, esplizituago eta batere idealizatu ez dagoen modu batean tratatzen ditu, eta beti konfesio-tonu batez. *Horacianes* bilduman soilik maitasuna modu zuzenean aipatzen duten hamabost poema daude – Estellesen kasuan sexuarekin ere lotuta daudenak–. Jarrera honekin argi ikusten da pasioa eta zentzumenen gozamina, oroimenarekin eta poesiarekin batera, inguruko opresioari eta errealitate zitalari aurre egiteko eta libratzeko modua dela. Estellesek sexuaren inguruan duen ikuspuntu lotsagabeena eta agerikoena, XXIII poema izan daiteke, kondoi bati egiten dion elegia bat, beste hizlari bat izango balitz bezala hitz egiten baitio. Lehenengo bi esaldiak nahiko adierazgarriak dira: «et veig gastat, flàccid, llançat,/ condó». Beste poema batean, adibidez, bular batzuen asimetriaz hitz egiten digu (XIII), edo beste batzuen perfekzioaz bost seme-alaba izan eta gero (XXXVII). Horaziok ere aipatzen dituen pertsonaien arteko hiru pertsonaz osatutako maitasun istorio baten inguruan hitz egiten du halaber: Mileto, Cloris eta Flèrida (XXXVI). Edo maitalearekin oheratzeko saiakeraren porrota, «he passat la tarda i la nit bevent» hasiera duen poeman. Badira sentsualitatetik gertuago dauden beste poema batzuk ere; batez ere, emakumeen edertasuna goraiatzen duten poemak, edo sexu-plazeraren eta jatea edo edatea moduko ekintzek ematen dioten plazeraren arteko analogia finak egiten dituzten poemak. Baina beti hizkera zuzena du, eta “koito”, “kopulatu”, “adia egin” edo “orgasmo” moduko hitzak erabiltzen ditu.

Horaziok ere modu berean hitz egiten du maitasun harremani eta sexuari buruz. Adibidez, I. liburuko V. satiran aitortzen du Brindisira egindako bidaiari «els somnis, tot provocant en mi fantasies obscenes, em taquen la camisa de dormir i la panxa». Bestalde, Priap jainkoak dioenez, arestian aipatutako II. liburuko VIII. satiran lapurrak uxatzearen arazoia «la verga, erecta i vermella, que surt, obscena, del meu entreceix» dela dio. Baina zalantzarik gabe, satirarik adierazgarriena I. liburuko II. da. Bertan, Horaziok maitasun pasioen arriskuez hitz egiten du, eta ezkonduko emakumeekin kontuz ibiltzeko esaten digu, gureak egin dezakelako. Satira honetan Cupienniri buruz «adorador de vulves d'alt llinatge» dela dio, eta norbaiti «li van podar amb la falç els collons i la tita per la seva lascívia» kontatzen du. Baina satiretan gauza gehiago topa daitezke. Horrez gain, «l'esperit de la seva titola» ri buruz ere hitz egiten du, eta berari sexu librea eta konplikaziorik gabea gustatzen zaiola dio.

«¿Et decantaries per aguantar-te l'erecció fins a rebentar? Jo no», esaten dio bere interlokutoreari⁶.

Maitasunaren eta sexuaren aipamen horietan Ovidiren eta *Ars amatoria*, literatura didaktikoari parodia egiten dion limurtze-eskuliburu modukoa, lanaren eragina ere antzeman daiteke. Izan ere, *Arts amatoria* garai hartako gizartean iskanbila sortu zuen *divertimento* modura ulertu behar da. Horazio, Estelles eta Ovidiren ironia erabakigarria bihurtzen da beste behin. Baina Estellesek egiten duen moduan, Ovidik ere bere obraren aurka daudenei barre egiten die, eta lizunkeria handiago bati ekiten dio. *Horacianes*-eko LV poeman erreferentzia esplizitu bat aurki daiteke:

em divertien les
amables bestieses de l'ovidi, el pobre,
escandalitzant fins i tot els déus
més benvolents, però jo no ho hauria
sabut fer mai. sentia un darrer pudor.
(vv.12-16)

1.3. «Marcat a foc per la injustícia»: kontzientzia eta konpromisoa, osagarri kritikoa

Hemen Ovidirekin duen paralelismoa ikus dezakegu, Estelles ere erbesteratua baitago. Ovidiren kasuan erbestealdi “erreal” da, izan ere, Tomisen (itsaso Beltzaren mendebaldeko kostan) hamar urte ematen ditu. Estellesena, aldiz, “barne erbesteratzea” da, bere herrialdeko adierazpen askatasun falta dela eta. Ovidiren erbesteratzearen arrazoia hauetakoren bat izan daiteke: bi Júlien (Augusten alaba eta biloba) maitasuna, Isisen gurtzaren profanazioa edo Augustoren⁷ ondorengoak proposatutako asmaketa-kontsulta batean parte hartzea.

Horacianes poema-bildumara itzuliz, bertan hirurogeiko hamarkadako Valentzia frankistako egoerari halako erreferentzia esplizitu bat egiten dioten poema segida bat aurki dezakegu. Adibidez, LI. poeman, idazleak Joan Fusterren *Nosaltres els valencians* liburuko suteari aipamena egiten dio, erregimeneko disidenteen ahotsa isilarazteko saiakera batean jazo zena 1963an—«aquest any miserable»—. Garai historiko horretako oinazeak aipatzen dituzten poemek tristura eta amorrua islatzen dute. LIV. poeman, adibidez, idazleak eta bere emazteak Raimonen diska bat entzutean sentitzen duten ezintasuna eta mina («arraparia les parets») nabari daiteke. Eta Ovidik, Horaziok baino gehiagotan seguruenik, galdetuko du ea «quan voldran els déus o qui siga/ que acabe aquesta situació.». LXXVIII. poeman «aquest moment funest i brut i trist» modura kalifikatzen du egoera; baina beste batzutan amorrua eta erraietako gorroto sakona inposatzen da.

OHARRAK

6 | Litekeena da sexua tratatzeko modu ausart horregatik jo izana Suetonik, Horazioren biografoak, bizioso eta libertinotzat, bere burua maitasuna egiten ikusteko gela ispiluz betea zuela zabalitzen zuen bitartean. Estellesek behin baino gehiagotan erantzun eta kritikatu du. (cf. LXIII, LXV, LXVI poemak).

7 | Cf. «Llibre seté: pòntiques» (*Versos per Jackeley, Obra completa 7*)-ko *Exili d'Ovidi* poema. Estellesek Ovidi hartzen du ni poetiko moduan eta bere erbesteratze egoerarekin paralelismo esplizitu bat ezartzen du.

estic parlant de coses terriblement concretes.
no estic fent un poema: narre un procés d'un odi.
de l'odi, al capdavant, de tot l'odi del món
i no accepte banderes ni receptes amables.
estic parlant d'un odi essencial, estricte.
(vv.27-31)

Horazioren kasuan, kritiko batzuk *Satiren* izaera apolitikoa azpimarratu dute, haien iritziz ez baitizkio testuinguru politikoari erreferentzia asko egiten. Baina kontuan hartu behar da gizarteko hainbat pertsoneri egindako erreferentziek eduki politikoa izan dezaketela.

to a certain extent some of the names deployed can be associated with negative attack on political targets, but more importantly, *Satires* I constructs a positive image of Maecenas, the young Caesar and the values they represent. This image is not just at the service of Horace's portrait of himself but is a calculated attempt to win over his readers to the new ruler (Muecke: 115-116)

Bere sinpatia agerian utziz, Horaziok ere horren alde egiten du, baina modu zorrotz eta konplexuagoan. Izan ere, Triumviratoak irudikatzen duen modelo ideologikoaren aurka dagoela adierazteko Luciliren influentzia erabiltzen du.

Horaziok literatur eredu gisa erabiltzen du, bai; baina aldi berean, transformatu egiten du eta gaiak gehiago laburtzen eta kondentsatzen ditu. Transformazio honek urruntzeko nahia adierazten du «not so much to criticize Lucilius, but to distinguish himself from the political motivations of more recent supporters of Lucilus» (Muecke: 116).

Beste poema batean (LXXIX), Estelles-Horaziok zuzenean iraintzen ditu politikoak (kontsulak eta pro-kontsulak); putakume eta sasikume gisa definitzen ditu, eta baita hiltzaile moduan ere, honako hau esatean: «practiquen un vici que hom diu necrologia». Izan ere, heriotza, bizitzarekin lotuta dagoela kontuan hartuta, Estellesen poesia-lanean agertzen zaigun beste gaietako bat da. Poetak berak aitortzen du «parle molt de la mort aquests darrers dies» (XIV), eta ezin dugu Estelles bere testuinguru historikotik aldentu. Esan bezala, heriotza paradoxikoki bizitza dela esaten du («una aparença de vida») eta agertzen zaizkigun momentu iheskor guztiak aprobeixatu behar ditugula (*carpe diem*). Egunen batean hil egingo garelako maite du hainbeste bizitza Estellesek (LX). Ez dago dramatismorik, VII. poeman heriotzari beldurrik ez diola esaten du, baina besteek bere poesia-lanaren inguruan pentsatzen dutenak kezkatzen du. Besteek bere poesia-lana «un pallaso de roma» dela pentsatzen ote duten galdetzen dio Horaziok bere buruari. Beste poema batean (LVII), bere heriotza anfora edo lapiko batean utziko duela dio, eta bere poemei esker jakin ahal izango dugula nola izan zen bere bizitza, modu batean Horazioren konposizio poetikoetan gertatzen

den bezala. Baina *Llibre de meravellesen* heriotza “hilotza” bada, hemen heriotzak batzutan bere aurpegi fisiologikoena erakusten du poetak «el nostre darrer acte o darrera voluntat/ serà també una cagada gratuïta, uns orins» (XVII) azpimarratzean edo «oblidar-me que un dia me n’hauré d’anar no sé/ on ni com ni quan,/ fet un paquet de merda i de tristesa» (LX) desiratzten duenean.

Estelles Horaziorekin identifikatua sentitzearen arrazoietakoa bat, besteak beste, poemak eduki politiko eta kritikoz betetzeko aukera izatea da. Esaterako, Suetoni biografoa, hainbat poematan agertzen dena, 1959tik 1992ra *Las Provincias* egunkariko zuzendaria izan zen Jose Ombuenaren ezizen gisa ulertu behar da. Ombuena egunkarira iritsi baino lehen, Estellesek bertan egin zuen lan ia hamarkada batez (1949-1958), eta garai hartako zuzendaria Martí Domínguez Barbera zen, erregimenaren alde egon eta Gerra Zibilan ejertzito errebeldean borrokatu arren, jarrera aldarrikatzailea eta gardena mantendu zuena. Jarrera horri eutsiz, gogor kritikatu zuen 1957ko uholdeek eragindako ondorio lazgarriak arintzeko gobernuak gordeta zituen laguntza ekonomikoen kudeaketa txarra. Ondorioz, Martí Domínguez kargutik kendu eta Ombuenak hartu zuen bere postua, eta argitaletxeko politikak kutsu antikatalanista hartu zuen; hizkuntzari, literaturari eta politikari dagokionez valentziarren nortasuna defendatzen zuten printzipio kultural eta ideologikoetatik aldenduta zegoen. Ez da harritzekoa, beraz, Estellesen *Horacianes* poema-bilduman Suetoni/José Ombuena akusatzea “tindre la llengua molt bruta” eta hainbat alditan “fill de puta”, “cabró”, “bord”, o “mesqui” deitzea. Baina kritika horretan, Estelles/Horazioren aldarrikapen bat ere aurki dezakegu, baita biek partekatzen zuten jatorri umilen defentsa ere.

El meu pare era «de l’horta». Mai no he sabut aclarir si la barraca on va néixer, i que, temps enllà, per una evolució bàrbara i natural, es convertiria en una modesta alqueria, pertanyia al terme municipal de València o a què collons. Treballava de forner. Abans havia estat aprenent de mecànic i quatre o cinc coses més. [...] Amb el temps fou un paler de molta anomenada: d’anomenada, fins i tot, comarcal. (Estellés, 1986:19)

Estelles-Horaziok beraz, Suetoniri leporatzen dio biografian berari buruz gaizki hitz egitea eta bere irudia zikindu nahi izatea arrantzale baten semea zela esanez; izan ere, bere aita liburu-saltzailea zen: «t’has demorat moltíssim referint/ que el meu pare fou pescater.» (LXII). Baina Estellesek Horazioren aitari edo bere aitari idatzitako poema guztien artean gauza azpimarragarriena, bere apaltasunaren eta sinpletasunaren aldarrikapenaren indarra da. Esker onari lotutako indarra, izan ere, nahiz eta bere gurasoek «no sabien de lletra», Estellesek eta Horaziok ikasteko aukera izan zuten (V):

intuïtiu, em vares dur als millors mestres de venusa,

més endavant de roma
i fins i tot em vas permetre anar a grècia.
com t'ho podria agrair, pare.
(vv.10-14)

XII poema ere gai honekin dago lotuta. Hala ere, batzuetan, aitari idatzitako poemak maitasun aitormen soilak dira. edo aita oroitzean eta bere alboan ezin egotean semeak sentitzen duen hutsunea adierazten dute. Aitarenganako jarrera hau, miresentzen hau, estimu hau, Horazioren sàtiretan ere aurkitzen dugu. Esaterako, I. liburuko IV. satiran, aitak, bere eredua erabiliz, bizioetatik urruntzen erakutsi izana eskertzen du. Batez ere, liburu bereko VI. satiran, bere jatorriaz ez lortsatzeko esaten dio Mezenasi, eta bere aitari eskerrak ematen dizkio ikastera Erromara eramán izanagatik eta «a ser honest, que és la virtud principal d'un home»⁸ erakusteagatik.

2. Ondorioak: «Sóc llatí, amargament, llatí»

Nahiz eta eskuartean dugun poema-bilduma honekin are analisi sakonago bat egin daitekeen, dagoeneko Estellesek Horazio berridaztera eta berridieraztera bultzatzen duten arrazoiengatik inguruko ondorio batzuk atera ditzakegu. Alde batetik, aurreratu dugun moduan, klasikoak, kasu honetan latindarrak, eta Horazio bereziki «es revelen, precisament, com un mecanisme que, a banda de posar de manifest l'aïllament cultural que patien els escriptors de l'època, [...] permet superar el control estricte que imposava la censura gràcies a la interposició de la dislocació geogràfica i temporal» (Aparicio, 2004:155). Beraz, esan dezakegu Horazioren mundua –paisaiak, lagunak, etsaiak, kezkak–, Estellesen arma boteretsu direla; matxinatzea eta barneko erbestealdiak inposatzen dizkion mugetatik borrokatzea ahalbidetzen dioten armak.

Bestalde, nahiz eta behin baino gehiagotan azpimarratu dugun identifikazio edo berridazketa tematiko bat dela formala baino gehiago –eta ez beste Estellesek Ausiàs March edo Urrezko Aroko beste poeta batzuk berridazten dituen bezala–, agerikoa da elaborazio formal edo esperimèntazio bat egin eta hizkuntza poetikoa berritu nahi duela. Gainera, Aparizio (2004) esaten duen moduan, bere lan poetikoa literatura unibertsalaren tradizioarekin lotzeko, eta ondorioz, probintzialismotik haratago kataluniako zirkuitu literarioarekin konektatzeko nahi esplizitu bat dago. Beraz, poesia erro latindarretatik egiteak kontraste bat sortzen du, eta ondorioz, hitz kolokialez eta dialektalismoz betetako hizkuntza baten erabileraren balantza paradoxal bat.

Azkenik, Italo Calvinok (1995) dioten moduan, merezi du klasiko baten irakurketa, egitan, berrirakurketa bat dela planteatzeak. Agian

OHARRAK

8 | Mezenasen figura, zena Horazioren poesiaren zati handi baten protagonista den aipatutako arrazoiengatik, inbokatzen du Estellesek XXX poemari («que els déus t'ho paguen o mecenes»). Suetoni eta Ombuenaren artean truke bat zegoen bezala, Mezenas Eliseu Climenten figurarekin, Estellesen editorea, identifika dezakegu, izan ere, *Horacianes* poema-bilduma berari eskainia da.

hori gertatzen da *Horacianes* poema-bildumarekin: klasiko latindar baten irakurketaren esperientzia, espazio, momentu eta hizkuntza «terriblement concretes» batean. Horazio klasikoa izanik, gaur egun ere irakurri eta berridatzi daitekeelako da hori posible, XX. edo XXI. mendeko irakurle baten itzaropenak asetuz. Ez zaigu hori egiteko beste modu berritzailegorik, ausartagorik eta aldarrikatzaileagorik bururatu. Jaume Medinak (1977:111) diuen moduan.

l'obra de Vicent Andrés Estellés ha encertat, pel camí de la imitació i de la identificació amb el món i l'obra del clàssic llatí, amb les seves pràctiques, amb les seves creences, amb les seves maneres de viure, a donar-nos un Horaci valencià, un Horaci de casa nostra, que no solament contempla el món a distància, en l'«objectivitat» de la història, sinó que ha assumit tota la manera masculina de viure i de veure el món, ja en la perspectiva històrica, ja en el moment present, donant-nos, alhora, una colla de personatges antics que, potser, tenen molt i molt a veure amb els moderns.

Bibliografia

- APARICIO, M. (2004): «Intertextualitat en l'obra de Vicent Andrés Estellés», dins F. CARBÓ, E. BALAGUER, i LI. MESEGUER (eds.): *Vicent Andrés Estellés*, Alacant: Institut Interuniversitari de Filologia Valenciana, pp. 135-160.
- CALVINO, I. (1995): *Por qué leer los clásicos*, Barcelona: Tusquets.
- ESTELLÉS, V. A. (1974): *Horacianes* (1963-1970), dins V.A. ESTELLÉS (1974), *Les pedres de l'àmfora. Obra completa 2*, València: L'Estel, pp.37-128.
- ESTELLÉS, V. A. (1986): *Tractat de les maduixes*, Barcelona: Empúries.
- FUSTER, J. (1972): «Nota —provisional i improvisada— sobre la poesia de Vicent Andrés Estellés», introducció a V. A. ESTELLÉS: *Recomane tenebres. Obra completa 1*, València: Eliseu Climent editor, pp.17-36.
- FUSTER, J. (2011): *Més discordances*, Alzira: Bromera.
- HORACI (2008): *Sàtires*, tr. J.J. Castelló, Martorell: Adesiara.
- HORACI (1981): *Odes i Epodes. Vol. II*, tr. Josep Vergés, Barcelona: Fundació Bernat Metge.
- JOAN CASTELLÓ, J. (2008): «Pròleg», introducció a HORACI: *Sàtires*, Martorell: Adesiara, pp.7-18.
- MEDINA, J. (1977): «Les *Horacianes* de Vicent Andrés Estellés», *Els Marges*, núm.9, pp.105-11.
- MUECKE, F.(2007): «The *Satires*», dins HARRISON, S. (ed.): *The Cambridge Companion to Horace*, Cambridge: Cambridge University Press, pp.105-120.
- VERGÈS, J. (1981), «Pròleg», introducció a HORACI: *Odes i Epodes. Vol. II.*, Barcelona: Fundació Bernat Metge, pp. 109-110.